



## PRENSA OHARRA

### **BIHAR 2.735 HAUTESKUNDE-MAHAIK OSAUKO DITUZTEN KIDEEN IZENAK JAKINARAZTEKO EPEA HASIKO DA**

#### **Hautesleen eta Mahaikideen lan baldintzak erregulatu dituzte**

Udalek zozketa publikoak egin ostean, martxoaren 1eko hauteskundeetarako EAEn osatuko diren 2.735 hauteskunde-mahaietako kideak izendatu zituzten eta, otsailaren 5etik 7ra bitartean, Mahaikide izendapena jakinaraziko zaie hautatutako pertsoneri. Jakinarazpenarekin batera, beren eginkizunari buruzko argibideak jasotzen dituen liburuxka bat banatuko zaie, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak argitaratutakoa. Kasu honetan, 25 mila hautesle inguru deituko dituzte, titular eta ordezkoen artean.

Hauteskunde hauetan 2.735 mahai eratuko dira. 406 Araban, 1.451 Bizkaian eta 878 Gipuzkoan. Mahai hauek 762 hauteslekutan banatuta egongo dira; 103 Araban, 346 Bizkaian eta 313 Gipuzkoan.

Mahai bakoitza Mahaiburu batek eta Mahaikide bik osatuko dute; dagokien udalerriko erroldan dauden pertsona guztien artean egindako zozketa baten ondorioz aukeratutakoak.

Ezin izango dute hauteskunde-mahaietan parte hartu:

- Hauteskunde-Batzordeetako kide direnek.
- Hauteskundeetara hautagai gisa aurkeztu direnek.
- Hauteskunde-bidezko edo aukerako izendapenezko herri-kargudunek.
- Bere herri eta politika-eskubideak erabat indarrean ez dituztenek.

#### **Derrigorrezko karguak:**

Mahaiburu eta Mahaikide karguak eta hauen ordezkokoak nahitaezkoak dira. Bidezko arrazoirik gabe ez joateak askatasun-gabetze zigorra eta isun bat ekar ditzake.

Hautesleak jakinarazpena jaso eta hurrengo egunean, otsailaren 8tik 14ra, kargua hartzea eragozten dion agiri eta guztizko bidezko arrazoiak Eskualdeko Hauteskunde Batzordearen aurrean aurkeztu ahal izango ditu.

Indarrean dagoen Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legeak 42. ataleko 3. puntuan azaltzen du "*erietxean dauden gaixoek eta gainontzekoek hori mediku-egiaztagiri baten bidez zuritu dezaketenean, hauteskunde-barrutitik landa bizi direnek eta itsasontzi-lanariet edo beste edonork, agiri eta guztiko bidezko arrazoiz, joan ezina adierazi dezakete*".



Otsailaren 15etik 19ra bitartean, Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak aurkeztutako aitzakien inguruko erabakia hartu du, ondorengo helegite barik.

Hauteskunde hauetarako 75 (hirurogeita hamabost) euroko dieta ezarri dute pertsona bakoitzeko, Mahaiburuarentzat eta Mahaikide bakoitzarentzat.

Botazioetan buru izatea eta boto horiek antolatzea, boto-kontaketa egitea eta hauteskunde egunean Hauteskunde-Legea betetzen dela egiaztatzea izango dira Hauteskunde Mahaiaren egitekoak.

Datorren martxoaren 1ean Mahaiburua, Mahaikideak eta ordezkokoak goizeko zortzietan joan beharko dira hauteslekura, Mahaia osatzeko. Ordu horretan, hautestontziaren eta hautesle-kabinaren egoera egiaztatuko dute eta, baita boto-txartelak, gutun-azalak eta gainerako hauteskunde inprimakiak dauden ziurtatu behar dute ere.

Hauteslekua irekitzen dutenean, goizeko bederatzietan, hauteslea identifikatzeaz eta erroldan agertzen den ziurtatzeaz arduratuko dira, beste zeregin batzuen artean.

Bozketa ixten denean, arratsaldeko zortzietan, posta bidezko botoak ireki eta hautestontzian sartuko dituzte. Halaber, zenbaketa egingo dute eta hauteskunde agiriak epaitegian aurkezteaz arduratuko dira.

#### **Mahaikideen eta hautesleen lan eskubideak:**

Martxoaren 1eko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, langileek euren ordainsariak jasota parte har dezaten arauak ezartzen dituen Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailburuaren Aginduaren arabera, honako eskubide hauek ezartzen dira:

- 1.-Hautesle diren eta martxoaren 1ean asteko atsedeen-eguna ez duten langileek gehienez 4 ordu iraun dezakeen ordaindutako baimena izango dute, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian iragan otsailaren 3an argitaratu zuten aipatutako Aginduak zehaztutako baldintzen eta betekizunen arabera.
- 2.- Hauteskunde-mahaietako kide edo kontu-hartzaile direla ziurtatzen duten langileek hauteskunde egunean ordaindutako baimena izateko eskubidea izango dute, eta hauteskunde egunaren biharamunean lanaldia 5 orduz murriztu ahal izango dute.
- 3.- Kontu-hartzaile direla egiaztatzen duten langileek ordaindutako baimena izateko eskubidea dute hauteskunde egunean.